

Milla, zortzireun eta ogeita zazpigarrenekoak dira, dirudienez.

Bilbaon gordetzen dira, Diputaziñoaren Liburutegi-Idazkitegian, aurkibide onetan: *Bizkaiko Korrejimenduko Artxibuan, 1017-garren Paper-xortako 4-garren auzibide agirian.*

Baraona-Enrique irakasleak esanda jakin det euskal idazti onen berri eta berak eman dit aurkitzeko bidea ere.

Iru aldiz edo iru paperetan jarrita agertzen da. Iru ale dira ba, eskuz idatzita. Itzen bat ez, eta irurak dira berdiñak. Esku batek egiñiokak irurak, dirudienez.

Otxandioko alkateari bialitakoa da lenengo igeki-kopia.

Burgoa-Karlos abadeari egin ziotena, bigarrena.

Iturzaeta Domingo-Tomas jaunak artu zuena, irugarrena.

Auzibide agiriaren asieran daude josita iru igeki-kopiok.

Zabaleta Pedro-Joxe jaunak, Zaragozako unibersidadean egin zian osagillerako ikasteak. An artu zuen «Bachiller en Medicina» izeneko mailla. Baita «Médico volante» ere izan zan, Zaragozan bertan, Gaixotetxe nagusian. Baita irakasle-ordezkarri ere, Osagilleen ikasleekin, Unibersidadean.

Alogeran eta tituluz zegoen medikutzan Portugaleteko urian 1828-garren urtean, baina Zeanurin eta Zornotzan ere egondu zen aurretik.

Osagille gabe zegoan Otxandioko uria 1827-garren urtean. Bizibide eta egikizun onetarako eman zuen bere izena Zabaletak, eta orduan agertu ziran iraiñezko euskal bertsuok.

M-B Altzola

S. MENDIBURUREN LANTXO BAT,  
BIBLIOGRAFIA HORNIGARRI

Sebastián Mendibururen liburuxka baten berri eman nahi dut, ene irudiz gure bibliografietan jaso gabea.

Liburuxka honek, 1922ra arte argitaratu gabe iraun zuenez, Vinson, Sorarrain eta Allende Salazarren katalogoetan jatsotzeke gelditu zen. Azken urteotan G. Garrigak Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-en argitara eman duen *Inventario Bibliográfico Vasco* (1892-1950) sailean ere ez da jaso. Baina honena parkagarri da, zeren bere lanaren hasieran sarrera gisa idatzi zituen lerrotan aipatzen zuen hutsune horien arriskua, Boletín del I.A.E.V.-en lehen tomoaren 51. orrialdean.

S. Mendiburu eta bere idazlaneri buruz R. M. Azkue, L. Elizalde, Y. Etxaide, A. Lizartza, L. Mitxelena eta L. Villasante jaunek egin dituzten estudioetan ez dut aurkitu bere aipamenik. Baina, 1968an, *Euskal idazleak. Mendiburu'tar Sebastian, S.J. (1708-1782)* izenez, Juan Anjel Etxebarria adiskideak bigarrenez argitaratu zuen, berak iaburtuz antolatua, S. Anton'go Katekesiaren Euskal-agitalpenak s<sup>a</sup> laren babesean, Bilbon. 29 orrialdeko liburuxka.

Liburuxka hau, San Frantzizko Xabierkoaren bederatzizurrena da, Santu honen kakonizatzearen hirurehun urtegarrenean Yorke Agirrek lehen aldiz argitaratua, bere hitzaurre labur batekin. Hara hemen bere xehetasunak:

*S. Frantzizko Xabierren irakurraldiak. A. Sebastian Mendiburu, S.J. Bilbao. El Mensajero del Corazón de Jesús. 1922.*

Neurritz, 9×13,5 zentimetru ditu, eta 132 orrialde. Telaz enkua-dernatua. Yorke Agirre, S.J.-ren hitzaurrea.

Hitzaurregileak ortografia berrian jarria dago, baina hitzak eta aditzak ikutu gabe, zeudenean utzia. Beraz, ezertariko aldaketarik gabe, gaia eta hizkuntza formeri dagokion aldetik.

129/132 orrialdeetan (azken orriak), «Bederatzurrena egiteko o-toitzak» ditu, Y. Agirre berak ezarriak.

J. A. Etxebarriak gertutako bigarren argitalpen laburtuak (Bilbao, 1968), bere 25/28 orrialdeetan, oharrak, aditz berokoiak, hitz bakanak eta esakera bitxiak gaineratu zizkion.

S. Mendibururen hoberena ez bada ere, bibliografian kontuan hartzekoak dira 1922 eta 1968ko argitalpenok.

*J. San Martín*

### **SOBRE NOMBRES MEDIEVALES VASCOS**

En los últimos números de este BOLETIN hemos visto varias aportaciones de nombres medievales vascos. Se puede decir que estos últimos años se ha trabajado bastante sobre este tema, exhumando muchísimos documentos medievales, del Archivo General de Navarra, la Colección Diplomática de Irache, algunos documentos de Leyre, los documentos del Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén, etc., más un extenso trabajo de compilación de R. Ciérvide en *Fontes*.

Juan Carlos de Guerra, se lamentaba en su ponencia durante el primer Congreso de Estudios Vascos, en 1918, por la escasez de